

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Familia bat Bruselan



ARITZ GALARRAGA

Ez obituario, ez *Cahiers du cinema*-ko zutabe ere, baina utzidazue zinemagile baten beste irakurketa bat komentatzen, oso laburra, itxuraz sinplea, seguru inperfektua, gauza handirik kontatzen ez duela ematen duena, baina bere labur sinple inperfektu gauza handirik kontatzen ez duen horretan, niri bederen, irakurketa erabat hunkigarria egin zaidana. Chantal Akermanen *Une famille à Bruxelles* eleberriaz, edo kontakizunaz, edo istorio soilaz ari naiz.

Senarra galdu berri duen emakume bat du protagonista, bere bi alabak, senarra bera, familia zabalxeagoa tarteka –guraso, neba-arreba, koinatu eta abarrekoak-. Bruselako auzo ezin itsusiago batean bizi da –“baina beti eduki dugu bainugela”-, alabak urruti, senarra beste auzoan jada. Eta galera horiei buruzkoa da, hain zuzen, narrazioa, elkarrekin osatzen zuten, duten, osatzen jarraituko duten familia, sendi, pertsona taldeari buruzkoa. Erretratua ez da batere krudela, ez dirudi existentzia oso dramatiko daramanik ere, ez zaio gertatzen beste munduko ezer, baina hain zuzen emakume horren, familia horren arruntasunak eragiten du ezinegona, eta ez nolana hikoia, finean, gu guztion arruntasuna baita.

Akermanen zinemaren bereizgarri omen, ez kalean gertatzen dena, edo ofizina, fabrika, ikasgelan, baizik eta egongela, logela, bainugela, bereziki sukaldean gertatzen dena harrapatzea. Intimitatea kontatzen du, beraz, baina ez exhibizionismo ariketa batean; konta daitekeenaren mugak zabalteko asmoarekin. Kasu honetan, familiaren intimitateaz ari da, gizartea antolatuta, arrazionalizatu eta menderatzeko metodorik sofistikatuenetako bat den familiaz. Noski, zertaz ari garen familiaz ari garenean: pertsonalki, Antonio Lobo Antunesena nahiko nuke atxiki, alegia, odol loturak gorabehera, familia dela zuk aukeratu duzun, eta zu aukeratu zaituen gizajende sorta hori. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



ADUR

“OINARRIZKO GIZA ESKUBIDE BAT BEZALA ULERTZEN DUGU ENERGIA”

JOSE MARIA MARTIODA, MENDI-HARAN UR PARTZUERGOKO LEHENDAKARIA

“Europar orain esaten ari zaizkigu hemengo herrietan aspaldi egiten ari garena: etxean beroa izateko eskubidea da tokiko komunitate energetikoa, energiarako eskubidea. Gainera, horrek indarra ematen die existitzen jarraitu nahi duten batzar administratiboei, XXI. mendeko produktu berriak ematen dizkielako burujabe izateko. Adibide bat: zuk zure etxean eguzki-panelak jartzen dituzu eta nik nireak. Sortzen dugun elektrizitatea partekatuta dezakegu, ados jarrita”.

ARABAKO ALEA (2021/03/13)

